

-Jose Ignazio  
Ansorena Miner-

1. GAURKO GOIBURUA.

Nola esaten da UNED euskaraz? Edo... tradizioa ez da inertzia. Hauxe jarri dut gaurko hitzaldi honetako goiburur.

Harrigarri gertatu zitzaidan, hitzaldi honetarako hitza eman eta egun gutxitara, BERRIA egunkarian Unibertsitate honetako zuzendaria egin zioten elkarrizketa ikusi nuenean. Han, goiburuan eta euskaraz "UNED-eko zuzendaria" jartzen baitzuen. UNED: "Universidad Nacional de Educación a Distancia". Bila ibili nintzen interneten eta topatu nuen euskarazko izen bat erakunde honetarako, ez jakin arren zein neurritaraino den ofiziala: "Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala". Errepublikatuko dizuet, baina isilketa bada ez bada ere, Garzón-ek entzungo balu arriskutsua izan liteke eta, Fernando Barrena berberak asmatutakoa ematen baitu: "Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala". Eta akronimo bihurtuta? UHUNI! UHUN, UHUNI: UHUN, UHUN, UHUNI! Ezta iri-lakarra kentzeko saioa ematen du.

Adiskide bati aipatu nion kontua eta horrela erantzun zidan: "Gure artean ohitura da, tradizioa, siglak eta akronimoak, euskaraz ari garenean ere, gaztelaniaz erabiltzea. Euskaraz jardun arren, erdatarren indarraren eraginez, ONU, SIDA, OTAN, DNI, IVA, UVI... eta horrelako hamaika botatzen ditugu hitzetik hortzera". Tradizioa ala inertzia, zer da jarraera hori?

Inertzia indar handia da, ez bakarrik fisikaren eremuan. Baita gizarte eta pertsonen kontuetan, arlo sikologiko eta sozialetan ere. Unibertsoko indarrik handiena ziur aski inertzia da. Inertziarik gabe ezin bizi gintezke:

(1) Iztueta, Juan Ignazio, Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia. Oñara gehiago datzi zituen Iztuetak, baina gure gharrekin lotutako interesgarriena hau da. Ezagutzen dudun argitalpenik onena hauxe: Euskiak Editoreen Elkarteak. KLASKOAK. Nº 100. Ezeabaitrenak prestatuta. Mersalero. Donostia, 1990. DorduaK Kusteko: Ansorena Miner, Jose Ignazio, Iztueta eta Albéniz-en musika bilduma. Txistulari aldizkaria, 163 z. Euskal Herriko Txistulari Elkarteak. Donostia, 1995:3

eguneroko bizitzak behar du inertzia. Dena, xehe mehe burutu aurretik pentsatu eta erabaki behariko bagenu, bizitza ezin eraman genezake. Beharrezkoa da, baina neurrian noski. Inertzia gelditu egin behar da maiz. Eta tradizioa, sari ni lanean aritu naizen alorra, beste kontu bat da. Desberdina eta benetan oso kontuan hartzekoa.

2. ADIBIDE BAT: NESKATX GIZONKOIAK HERRITIK BOTATZEKO SOINUUA.

Juan Ignazio Iztueta Europako lehen folklorea zalea dela esan izan ohi da, 1824.ean Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira (1) argitaratu eman zuelako, beren pauso eta koreografiak zehazki adieraziz. Eta 1827ean, hauei zegozkien doinuak ere argitaratu zituen. Hantxe agertzen da doinu hau, beste hainbaten artean: Neskatz gizonkoiak herritik botatzeko soinua.

Ziur aski jatorria ez du euskalduna izango, Europako musika zorro zabala-ren beste ale bat izango da (Hainbat bezalatsu: Olentzero; Agur, Jaunak; Ai, mutilak; Uso zuria; ...). Aspaldiko tradizio edo usadio baten aipua egiten du Iztuetak. Emakume galduak, urdangak, prostituta edo antzekoak herritik botatzen ziren (Tarteka, alkateak edo bere emazteak, edo apaiz sutsu batek eskatzen zuenean), edo beste arazoak estaltzeko komeni edo arbi bat ahoan eta danbolinteroa ondoan musika hau joz, herritarrek irain egiten zioten bitartean.

Ez dago, ordea, mutil edo gizon andrekoiak herritik botatzeko soinurik. Gaur egun, doinu hori gure folklorea mantentzen da. Hainbat

lekutan jotzen da gertakari ponpoxoan inguruan, aldaera txiki batez edo bestez. Esaterako, Elorrioko Errebonbiloen festan, edo Titibili izenez, gure probintziako Iruñ eta Hondarribiko alardeetan.

Han gertatzen ari dena festa horien inguruan, zer da? Tradizioa edo garai bateko inertzia luzea?

### 3. TRADIZIOZALEAK: IDEOLOJIA BETI TARTEAN

Tradiziozaleen izenaren azpian beti —oharkean edo ohar-tuta— ideologia eta aurreiritziak ezkatzen dira. Eta gaur egun izen beraren azpian kontrako muturren ideologia estaltzen dira. Hau Euskal Herrian esateko garrantzitsua da, hemen entzuten delako sarriri: behin baino gehiagotan egiten den gutzia tradizioa da. Eta tradizio izen sakratu eztabildaezinez ematen duen estalpearen aitzakiaz edozein astakeriari bide ematen zaio. Baina ez da egia. Kontu horietako asko ez dira tradiziozkoak, inertzia-ekin lotzen dira.

Aspaldiko tradizioei buruz ari garenez, neuk ere bati jarraituko diot: ideiak hobeto ulertzen dira parabolan edo ipuinen bitartez. Eta, laburtuta, gaur eguneko kataluniar idazlerik onenetakoak, Quim Monzo-k, sortutako ipuina kontatu nahi dizuet. Zurgin familia batean aspaldiko ohitura dute: haurrek bederatziko urteak betetzen dituztenean, familia osoaren festa ospatzen dute eta ezker eskuko hatz nagia trenkatu egiten diete. Betidanik izan omen da hori horrela eta familia honetakoei beste familietakoek bederatziko urteetatik aurrera hatz guztiak gordetzen dituztela ikustea desatsegina ere gertatzen zaie. Dena ondo joan da, bederatziko urteko Armand-ek aitari ez duela bere hatza moztea nahi esan arte. Armand txikiak amets egiten duelako noizbait osaba Reguard-en etxean ikusitako arpa jo ahal izatea (txantxetako ez, benetako musika tresna). Bapatean zer bait harrigarri hasiko da familian gertatzen: ume berriak

jaio, ezkerreko eskuan sei hatz dituztela. Eztabaidak eta konponezinak. Denetarako iritziak. Eta horren ondorioz, urte gutxitan, familia desituratu egiten da. Akabo festak, bazkariak, harremanak... Armand bera da, urteetan aurrera joanda, deskalabro honen ondorioak jasaten dituena. Mozkor galtzaile bihurtu da. Taberna batean kexuz, hatzak mozteko ohitura berreskuratzeko beharraz ari delarik, inork ez dio kasurik egiten... Predikua amaitu duenean neska bat hurbildu zaio, bere hitzetan interesatu duen bakarra: kristalezko begia dauka (2).

### 4. BI TRADIZIOZALE DESBERDIN: KREDOAK

Publikoki tradiziozale azaldu garenontzat, tradizioarekin ofiziozko eta afiziozko lotura dugunontzat, bereziki da kezkatzeko modukoa gutzi hau. Izen hau gutxienez bi zentzu desberdinetan uler daitekeelako. Bata inertziazalea eta bestea, gutzi desberdina, benetako tradiziozalea. Beraien Kredoak edo uste bildumak azalduko dizkizuet, aldea argiro ikus dezagun.

**Inertziazalea** da ezagutu dituen bizimoduak bere horretan mantendu nahi dituenak, munduak aldaketarik ez duela behar uste duena eta hori defendatzeko gogor egiteko prest dagoena.

**Tradiziozaleak**, aldiz, gustukoa du munduak aurrera egitea. Batzuetan, berak txikitandik ezagutu dituenak edo amonak kontatutakoak galduz doazela ikustean, malenkonia apurra sentitzen du (norberaren aberria oroitza-pena baita), eta saiatzeko da horietan gorderik zegoen jakintza biltzen etorkizunean ere horren lekukotza gera dadin.

**Inertziazaleak** maiz uste izaten du bere herriko ohiturak eta usadioak besteena baino baietsuagoak direla. Bere herria noizbait aukeratu izan zela eta jatorren arteko jatorrena izate horri eutsi behar diola edozeren gainerik.

**Tradiziozaleak** pertsona eta herri guztiak

balio berekoak gara du uste, hain zuzen denok desberdinak garelako. Desberdintasunak ballotzat jotzen ditu eta maite. Eta, gutzit tontoa ez denez, bakoitzak bere baratzza zaindu behar duela uste du eta praktikan jartzen.

**Inertziazalearentzat** mapex oso zehatzak izan behar dute, lerro lodia garbiez bereizi herri batetik besterako saltoak (marrak non kokatzen diren kontu desberdina izaten da) eta bata bestearen ondoan dauden herrien koloreak ere gutzit kontrakoak izan, inoiz ez ekarren osagarri.

**Tradiziozalearentzat** mapex ez dituzte (balio geografikoa alde batera utzita noski) inoiz ondo jasotzen herrien arteko komunikazio-bereziketa harreman aberatsak. Asmo administratibo-politiko batzuen agerpena dira, zoritxarrez praktikan duten eraginarengatik gero eta errealego bihurtzen direnak.

**Inertziazaleari** ez zaio ikerkuntza (benetakoa, trukurik gabekoa) gustatzen. Tradizioa berak esaten duena da, ez besterik. Gehienetan bere herriko kanta ederrak, dantzak, pertsona herrikoak, zenbait ohitura berezi, kirolak... Beste kontu batzuk, aldiz, biraok, kanta lizunak, herri medizinararen praktika abortiboak, herri horren historian gertatu diren besteenganoak zapalaketak, pertsonaia miserabileak, ukatu egiten ditu. Eta inork haizeatzen dituean, esaldi hau du gustuko: etxeko arropa zikinak norberaren etxean garbitzen dira.

**Tradiziozaleari** ikerkuntza liluragarri gertatzen zaio. Aurkitzen duen xehetasun bakoitzean, humanoen handitasunaren eta txikitzaunaren azarnak ikusten ditu. Bere burua, bere sozietatea, bere garaik ulertzeko baliagarri zaizkio tradizioen ikerketak gerturatzen dizkion testigantza guztiak. Dena begirada zabalez aztertzeko prest dago eta beste garaietako eta beste kulturetako ezagutzak gaur eguneko zenbait jokabide desegoki zuzentzeko bide eman diezaiokela uste izaten du.

**Inertziazaleak** ohiturak eta erritmoak isolatu egiten ditu, ez ditu garai bateko pentasamonde, sozietate eta kultura osoan integratuta

eta erlatibizatuta ikusi nahi. Erritoren keinu soilak errepikatuz antzinako jatorrasunaren hatsa barneratzen duela iruditzen zaio.

**Tradiziozaleari**, aitzitik, ohitura horiek berak kultura oso eta egituratu batzuen seinale gisan agertzen zaizkio. Eta gaur eguneko munduan, indibiduoak, sozietatea eta Natura arteko harremanak nahikoa desorekatuta sentitzen dituzte, haietan arakatzeko saiatzeko bide argiak topatzeko itxaropenez.

**Inertziazalearen** esaldi maiteenatakoa hau da: pasatako garaiak beti hobeak: Eta horregatik salatzen da —eguneroko bizitzan ardurapen materialak gogoz onar baditzaake ere— automobilak, telefonoak, ordenadoreak... —bizitzari buruzko konzeptu oinarrikoenak (emakume-gizon paper banaketa, gizarte liturjiak,...) ez ezertan aldatzen, bizitza oso-koak direlako, alegia bere bizitzakoak.

**Tradiziozaleak**, berriz, esaldi hau hartzen du goiburuk: humanoen mugak zein diren ezagututa ere, ahaleginduko naiz datoen garaik hobetzen. Eta horregatik tradizioa pasatako garaian EKARPENA (latinez, tradosekarri, utzi, eman) denez, bertan alderdi onak eta txarrak ikusten ditu, aprobetxatzeko modukoak eta arbuatzeak, eta galbahetik pasa beharra aldarrikatzen du. Eta inori kalterik egiten ez dizkioten kontuetan begi handiko gaibaha erabiliko badu ere, inori eta batez ere ahulenen eskubideak zanpa ditzaketenenetan begi estu zorrotzekoa ibiliko du.

Bi mutur hauen artean, bizitzako arazo gehienetan bezala, hamaika gradu, konbinaketa eta ñabardura egim daitezke. Baina gezurra ematen badu eta inork bere buruarengatik aitoruko ez badu ere, inertziazale indibiduo eta talde ugariak aurki daitezke gure artean.

## 5. HISTORIA APUR BAT

Askotan Historiak kontu bitxi eta barrengarriak erakusten dizkigu tradizio kontuetan. Donostiako Jose Juan Santesteban musikagile maisuak 1837-ean, lehenengo Karlistadaren giroan, Oriamendi inguruan espero zen libe-

(2) Monzo, Quim, Cuadalaia. Ed. Anagrama, Barcelona, 1997

ralen garaipea ospatzeko idatzitakoa karlisten himno nagusi bihurtu zen.

Por Dios, por la patria y el Rey  
Lucharon nuestros padres.  
Por Dios, por la patria y el Rey  
Lucharemos nosotros también.  
Lucharemos todos juntos  
Todos juntos en unión  
Defendiendo la bandera  
De la Santa Tradición. (bis)  
Cueste lo que cueste  
Se ha de conseguir  
Venga el rey de España  
A la corte de Madrid. (bis)  
Por Dios, por la patria y el Rey...

"Tan seguros (sic) tenían los liberales la victoria que el organista de Santa María, maestro Santesteban había compuesto una Marcha, para celebrarla (...)  
La adversa circunstancia de que en los Aleguis, hacía la actual estación del ferrocarril, dos batallones británicos fuesen cogidos entre dos fuegos —los del 6º Batallón de Guipúzcoa que atacaba por la parte del caserío Bestizaran y los del 4º de Alava que lo hacían desde el puente de Ergobia— desconcertó al general Evans, y fue el comienzo del desorden en el campo liberal... desorden que se convirtió en fuga de los soldados hacia el refugio de San Sebastián. Los paisanos donostiaras que habían subido al monte para ver la victoria de los isabelinos, hubieron también de poner pies en polvorosa tan pronto se volvieron las tornas. Y hasta la banda de música perdió instrumentos y papeles donde estaba escrita la Marcha triunfal de Santesteban... que fue —original botín de guerra— luego el himno carlista de Oriamendi" (3).

## 6. TRADIZIOAREN IRAKASPENA

Tradizioetan arakutzen ibiltzeak ematen duen aurreneko ikasgaia hauxe da: apalatasuna. Hain garrantzitsu ematen zuena, urte batzuen poderioz txorikaka baino gutxiago da.

Maiz gogoratzen naiz Langraitzen, Araban, Donostiako Udaleko Txistulari Taldeko lagunoi, urte dexente direla, gertatutako anekdotak batez. Kontzertua eskaintzeko asmoz joan ginen bertara. Jo behar genuen lekuko arduradunak galdetu zigun:


—¿Y vosotros qué corriente usáis, 125 o 220 V?  
—Nosotros no usamos corriente eléctrica —erantzun genion. Eta orduan berak:  
—¡Pues vaya unos músicos de los cojones!

Kontu asko argitu zidan bat-batean. Ez gaituzen esatera zahararen merzidunak izan: puzkerra izan nahi eta putza izan ez. Munduan dagoen gauzarik barregarriena itxurazko solemnitatea da. Tradizioaren azterketak ez du inoiz ezta inori ere ez, harrakeriarako biderik ematen.

Gure garaiak ere tradizioa, ekarpena sortzen ari dira datozen garaietarako, hurrengo urteetan eta mendeetan tradizioa izango dena ari dira mamitzen. Eta tradizio berri horretan berrietasunik ederenetakoa begiradari dago. Bi pertsonen artean aurreneko bereizketa sexuarengatik, arrazarengatik, sinismenengatik, itxura fisikorengatik egiten duena gaizki ari da begiratzen.

Datozen urteetan eta mendeetan tradizioa horixe izango da, begiratzeko modu berria. Nik behintzat horretarako ahalegina egingo dut.

(3) Berrueto, José. Historias de Guipúzcoa. Ed. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Tolosa, 1977. 98-99



# Iparraldeko Dantzarien Biltzarra